

## OHITURAK ETA FOLKLOREA EUSKAL ATSOTITZETAN

*Durangon, 1996-XII-06*

*Gotzon Garate Goihartzun*

...30 urtean atsotitz biltzen ihardun dut Euskal Herriko zazpi probintzietan. Hogeita bi baserrian. Zeanuritik hasi eta Larrainerainoko baserrian etengabe egonaldiak egiten ditut.

13.000 atsotitz baino gehiago bildu ditut urteotan. Milaka eta milaka sekula bildu gabeak. Orainxe da atzotitzak biltzeko azken garaia. Baserrietan ere jende gazteak zaharren aldean atsotitz gutxi daki. Jende zaharra hiltzen denean, kito. Niri chunka atsotitz esan didaten aitonamonak hil dira.

1997 urtean argitaratuak izango direla uste dut bildu ditudan 13000 atsotitzok.

Euskal atsotitz horiek espainolez, ingelesez eta latinez nola esaten diren ere agertuko da, 4000 atsotitz latinez. 5000 ingelesez eta 6000 espainolez agertuko dira.

Aspalditik hasi ziren euskaldunak atsotitz biltzen. Hor dugu, adibidez, *Refranes y sentencias de 1596* bilduma. Gero ere bilduma bikainak izan dira. Dena delarik, gehien bildu dituenak 3000ren bat atsotitz bildu izan ditu.

Euskal atsotitzei buruzko teoria, ordea, gutxi dugu. Ni *Euskal atsotitzak* liburuan bidea ebakitzen ahalegindu naiz.

Euskaldun askok oso itsotitz gutti dakite euskaraz. Maiz ikusi dut, euskaraz ongi dakitenek ere, atsotitzak erdaraz jaulkitzen dituztela.

Berrikitan euskaldun batek artikulua bat idatzi zuen, dena euskaraz. Une batean, ordea, hauxe esaten zuen:

“Zuri, behar bada, erdaraz esaten dena gertatzen zaizu”: “Piensa el ladrón que todos son de su condición”.

Idazle horri galdetu nion: “Hi, zergatik idatzi dek hori erdaraz?”.

“Euskaraz nola esaten den etzekiat nik”.

Baserritarrek atsotitz nahikorik badute hori adierazteko. Bat:

“Axeriak buztana luze; beste denak horrela dutela uste”.

Erdaraz askok dakite esaten, “Zapatero a tus zapatos”. Euskaraz ez, ordea. Iparraldeko baserritarrei entzuten diet:

“Ez galda erresiñolari karreun aritzea, ez eta zaldiari kantatzea”.

Beste tokitan:

“Jostuna jostera, okina labera”.

Molde askoz esan liteke atsotitz hau.

“Salir de Guatemala y entrar en Guatepeor”.

Nola esan euskaraz? Molde asko daude:

“Elorritik atera eta sasian sartu”, “Kearen beldurrez, surat ihesi”. Beste asko ere bai.

“Desvestir a un santo para vestir a otro” esateko. Baztango baserritarrei entzungo diezu:

“Asto bati buztana moztu eta bertzeari paratu”.

Nik neure liburu horretan 6000 bat gaztelerazko atsotitz argitaratuko ditut, gaztelerazko inportanteenak, eta euskaraz nola esaten diren aurkituko du irakurleak. Baserritarrek zazpi probintzietan esaten duten bezala.

Atsotitzek alderdi on asko dituzte. Euskara, adibidez, izugarri aberasten dute. 13.000 atsotitz horietako euskara erabiltzeko gauza dena benetan bada nor.

Hiztegieta ere iraultza dakarte. Hemendik aurrera, hiztegiek hitz bat soila agertu beharrean, atsotitzaren ingurumenduan azaldu lezakete. Atsotitzak per-pausa osoak ematen dituztenez gero, hitzaren esanahia askoz hobeto argitzen da.

Lan honetan ez naiz atsotitzen euskararen aberastasunaz mintzatuko, gai jakingarria izan arren.

Atsotitzetan herriaren filosofia, tradizioak, folklorea, pentsamoldea, balio moralak eta ohiturak azaltzen dira.

Engungo hitzaldian alderdi hauez mintzatuko naiz. Oso laburki eta oso gaingiroki. Aurten Deustu Unibertsitatean, Euskal Filologiako ikasleei honetaz ari naiz mintzatzen. Guztira 60 ordu emango ditugu gai hau azaltzen. 13.00 atsotitzok argitaratzen direnean, nork bere gogara aztertzeko aukera izango du.

## ABADE-APAIZAK

Euskal Herrian milaka eta milaka apez eta lekaime izan dira gizaldietan. Herriak maite izan baditu ere, ziria gustura sartu izan die.

Apaiztegia dagoena nolako apaiza izango den jakitea erraza da. Apaiztu baino lehen ona bada, gero ere apaiz ona izango da.

“Apeza eta odolkia egiten diren bezelakoak izaten dira”.

Nolako pertsona, halako apaiza. Nolako odola, nahasgarriak eta osagarriak, halako odolkiak.

Euskal Herriko etxe askotan ama-alabek garbitzen dituzte platerak eta ontziak otordu ondoan. Noiz edo behin gertatzen da plateren bat puskatzea. Aitak orduan, alabari erantzute egiten dio. “Beti plater puskatzen”. Orduan alabak edo emazteak hauxe erantzuten:

“Abaderik ez da jausten gaztaina ganetik”.

Gaztainondo gainera igotzen ez delako. Dabilenari gertatu ohi zaio ezberhara.

Hori bera esateko beste tokitan honela esaten dute:

“Apaizari ez zaio igitaia galtzen”.

Ebangelioan eta hizkuntza askoz esan ohi da: Zuk inori egiten diozuna, egingo dizute zeuri ere.

Gauza bera adierazteko, euskaraz 30 molde baino gehiago daude. Horietako bat:

“Abadiak zelan kanteu, monagilloak alan erantzun”.

Gure haur denboran orain baino gaizkiago jaten zen. Goseak ere maiz ibiltzen ginen. Herri txikietan apaizak jaten zuen ondo. Baserritar batek baba go-riak eman zizkiola, beste batek oilazkotxo bat, urliak sagar on batzuk, sandiak sasoiko gaztaina ederrak, berendiak amorrai frexko frexkoak, dena delarik, apaizak ondo jaten zuen.

Hori Fernando Amezketarraren kontuetan ere garbi azaltzen da. Fernandok, ahal zuelarik, apaizarekin bazkaltzeko ahaleginak egin zituen.

Bizkaian maiz entzun ohi da:

“Abadeiren lapikoxea, txikia baiña goxoa”.

Gipuzkoako baserrietan maiz entzungo duzue:

“Ondo jateko, harakinarekin gosaldu, apaizarekin bazkaldu eta mandazainarekin afaldu”.

Ez da esaera hau ulertzen zaila. Goizean, harakinak, dendara doanean, okela zatirik ederrena hartu eta gosaria egiten du.

Afaldu ongi, berriz, mandazainak egiten zuen. Mandazainak, kamiorik ez zen denboretan, manduekin batetik bestera ibili beharra zeukan, zamak eramaten.

Egunez deus gutti jaten zuen, ahamentxoren bat edo. Gauean, ordea, zamak nori berea emanda gero, mandoak kortan sartu, ondo gobernatu eta afari on bat egiten zuen.

Beraz, ongi jateko harakinarekin gosaldu, apaizarekin bazkaldu eta mandazainarekin afaldu.

Apezek lan gutxi egiten omen zuten:

“Apezak erdi ordu lanean eta hori ere ardoarekin” entzuten diet Goizuetako baserritarrei.

Lan gutxi egiten zuten fama hori beste atsotitz honetan ere azaltzen da:

“Ondo bizitzeko militarrenen jornaia, apaizaren lana eta maisuaren bakazioak”.

Garai batez, behintzat, militarrek jornaia hona izaten zuten. Apaizak, berriz, lan gutxi. Meza eman eta kristau ikasbidea haurrei irakatsi. Maisuek, aldiz, gabonetan, aste sainduan eta udan opor luzeak.

Hortxe bada: hiruon alderdi onak batuz gero, irabazpide ederra, bapo bizitzeko modukoa.

Fraileek eta abadeek beti eskatzen ari omen dira. Eman gutxi. Honatx Bizkaian bildu ditudan atsotitzok:

“Fraileak eskatzeko bakarrik zabaltzen a(h)oa”.

“Mesediek abadien, eurek ondo kostata”.

“Abadien lelengo dirue eta gero liburue”.

“Artu ta emon, praileak eztitu bi izen on”.

Errezil inguruetan beste hau:

“Apaiza eta lurra eman gabe ez dira engainatzen”.

Bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan:

“Fraillien dozente amairu”.

## ADISKIDEAK

Munduko gauzarik ederrena lagun jator bat izatea da. Ez da ordea, bat batean egiten.

“Adiskidea egin baro len, berarekin arroa (12kilo terdi) bat gatz jan bear da”.

Nortzuen artean izan liteke egiazko adiskidetasuna?

“Adiskidetasuna berdintsuen artean”.

Egiazko laguna ez da ikusten gauzak ongi dihoazkigunean.

“Egiazko laguna behar orenetan ezagutzen”.

Zenbat aldiz entzun ote genion geure ama zenari:

“Laguna, lagun zakidaz intxaur berdiak jaten”.

Ez da erraza adiskide ona topatzea:

“Adiskide ona aurkitzea baiño astoa adarrekin aurkitzea errazago”.

Hori, bai, bat aurkituz gero, hari eman behar zaizkio beste inori baino ustea eta konfidantza.

“Ehun ahaide baino adiskide on bat hobe”.

Bizitza lagunik gabe goibel:

“Adiskide gabeko bizitza, auzo gabeko eriotza”.

Bide luzea a ere lagunarekin labur egiten da:

“Lagun elekari, bideko zamari”.

Laguna galtzea oso da deitoragarri:

“Lagun ona galtzea biño, ortzak galtzea obe”.

Espainolek esan ohi dute: “Dime con quién andas y te diré quién eres”. Euskaraz ere atsotitz asko daude hori esateko. Horietako bat:

“Nolako laguna, alako jarduna”.

Maiz entzun dugu gaztelerazko kantua: “Si no tienes un duro, no te hace caso nadie”.

Euskaraz:

“Emanez gero, zakurrak ere lagun”.

Egiazko lagun gutxi izaten dira. Batzuek adiskidetasun kontua ilun aldetik ikusten dute:

“Egiazko lagunak, makila eta zakurra”.

Makila, nork bere burua defendatzeko eta zakurrak, beti zintzo direlako.

Zenbat eta lagun gehiago, hobeto.

“Ehun lagun gutxiegi; etsai bat gehiegi”.

Lagunetan, zaharrago eta hobe:

“Urdaia, gazta eta arnoa urtekoa; adiskidea urtetakoa”.

Ez fidatu guztien adiskide denarekin:

“Adiskide dena ororen, ez da inoren”.

## EZKONTZA

Gizartea familian oinarritzen da. Eta familiaren bidea ezkontza da.

Atsotitzek behin eta berriz aholkatzen digute, ezkondu aurretik kontuz ibiltzeko.

“Ezkondu baino len, begira zer egiten den”.

Eta beste hau:

“Kontuz, andreak ez du bederatziruarenik”.

Atsotitz honek baseritarren arteko ohitura gogorazten digu.

Erosleak erositako ganadua etxean bederatziz egunez izaten zuen. Egun horietan ganaduari akats handiren bat aurkitzen bazion, saltzaileari atzera emateko eskubidea zuen.

Andrearekin, ostera, ez dago horrelako bederatziruarenik. Ezkontza geure artean betiko izaten zen.

Sarri ezkondu aurretik, pozaren pozez, dena da erraza.

“Ezkondu aurrean aldapa guztiak zelai”.

Maitemindua dagoenari, garbi antzematen zaio:

“Amodioa, dirua eta estula ezin disimulatu”.

Gizasemeok badugu bozkario izateko motiburik. Noiz da gizona ezkontzeko gai?

“Lakari bat labore (hiru kilo) jasotzeko gauza dan arte, ezkontzeko gai da gizona”.

Ezteietan jendea diru xahutzeko prest izaten da:

“Ezkontza pobrerik ez: iltze aberatsik ez”.

Gehienetan ezkon berritan gauzak ongi joaten dira:

“Ezkonberritan galbaian ere ura, gero errandan bez”.

Beste atsotitz hau ere oso zabaldurik dago eta maiz entzuten da:

“Ezkondutako urtea eta txarria iltzen den astea onenak”.

Poz hori beste atsotitz honetan ere mamitzen da:

“Ezkondutako urtea sagastia goldatzeko urtea”.

Atsotitz hau ulertzeko, gogotan eduki behar da, sagastia goldatzea oso zail dela. Sagarrondoak ebagi eta lurra zainez beteta gelditzen da. Goldeaz zain horiek kentzea ez da erraz”.

Ezkondutako urtean, ordea, gizona pozez beterik dagoen ezkerro, lan horri ere gogoz ekingo dio.

Ezkontza loteria dela esan ohi da. Hori bai, asmatzeko aholku hau ematen dute:

“Ezkontza berdintsuen artean”.

Berdintasun hori adinean eta aberastasunetan izan behar da, batez ere.

Maitatzea eta ezkontzea ez da arrazoiaren arazoa; ez da gogoeta askorik eginez burutzen. Bihotzak du legea.

“Ezkontzeko txoratu egin behar da” esaten dute Azpeitia inguruetan.

Beste toki askotan ere uste berdintsuari eusten diote.

“Ezkontza ta buzkentza beruen”.

Ezkontza pazentziaren eta amore ematearen eskola da.

Zeanuriko baserritarrek maiz jaulkitzen dute:

“Itsaso, (h)i ere, ezkonduko baintza, domatuko intzake”.

Euskal Herrian, irailean batez ere, itsasoa zein haserre ibiltzen den kontutan hartuz gero, badu esaera onek mamirik.

Garai batean jendea ez zen gaur bezainbat ibiltzen. Ezkontza ingurukoekin egiten ziren. Horregatik atsotit hau:

“Urrunera doana ezkontzera, edo da enganatua edo doha engainatzera.

Danera, nahiko beltz dira ezkontzari buruzko esaerak. Arriskutan sartuko da ezkontzen dena. Horregatik:

“Ez aholkatu inori ezkontzera eta ez gerrara joatera”.

Ez harritu emakume politarekin ezkontzen denak istilluak izaten baditu. Atsotitz askok alde zurre jakinaren gainean ipintzen gaituzte:

“Andre ederra, etxean gerra”.

“Andre ederra, andre alperra”.

“Edertasuna emazte ahalkean, erastuna urdearen muturrean”.

Aitzitik, emakume itsusia, langilea izan ohi da:

“Andrea bada baltza ta igarra, arek eingo jok soloan bearra”.

Familian gizonak ematen ditu larderia eta begirunea, alfer galanta eta etxe-ko hondamendia izan arren.

Zazpi probintzietan entzungo duzu esaera hau:

“Gizona gizon otarrapetik ere”.

Gure aita zenak makina bat aldiz kontatu zigun esaera horri loturik dagoen gertakizuna.

Etxe batean senar-emazteak bizi omen ziren. Andrea maratza, zartadakoa, langilea, arduratsua omen zen.

Senarra, ostera, alferra, burugabea, etxeko hondamendia. Gauzak batekoz bestera egiten zituen: ardo upelak zabalik utzita oilazkoak eta zerriak itoarazi, andreak agintzen zizkion mandatuak sekula ongi ez egin, eta horrelakoak.

Gertakizun amorragarri askoren ondoan, andrea asper asper egin zen. Hartu zuen gizona eta otar batean sartu zuen, amildegri batetik behera botatzeko.

Hartu zuen otarra eta otar barruan gizona. Amildegiko bidean gora zihola, atzetik zakurra zetorrela ohartu zen emaztea. “Pintto, etxera”, esan zion andreak.

Zakurrak jaramon ez. Berriz ere andreak: “Pintto, etxera”. Alferrik. Hirugarren aldiz. Alferrik.

Orduan otar barrutik gizona: “Pintto, etxera”. Zakurrak nagusiaren ahotsa entzun orduko, etxeranza itzuli zen.

Hori ikusirik, emazteak esan omen zuen: “Gizona gizon otarrapetik ere”. Hau da, gizonak, alferra eta ganorabakoa izanarren, berak ematen dizkio etxeari larderia eta itzala.

Errezilgo baserrietan entzun dut atsotitz hau:

“Haserretu ez diren senar-emazteentzat urdaizpiko bat omen dago; oraindik hasi gabea”.

Haserrebidea, batez ere, diruezak ekartzen du:

“Etxe utsa, gerra hutsa”.

Zorionez, senar-emazteen arteko haserrikerik gehienak erraz konpontzen dira. Esaera hau ere Azpeitin eta Errezilen esaten dute:



“Senar-emazteen arteko haserreak izaren azpian bukatzen dira”.

Emakumez dozena ta dozenaka atsotitz dira. Gehienak beltzak, gizonetz-koek idatziak baitira.

Badira, ordea, emakumeen doainak azaltzen dituztenak. Honatx bat. Lehenqo entzunaldian ez da ulertzen erraz. Esaten dutenei galdetu behar zaie zer esan nahi duen.

“Andre finak gizonaren gainetik egunean bi aldiz pasau behar du”.

Hona hemen baserritarrek beraiek emango dizuten azalpena. Emakumeak ohean hormaren kontra lo egiten dute maiz. Emakume finak goizean gizona baino lehenago jaiki eta gizonaren gainetik igaro behar. Gauan ere bai, gizona lehenago etzaten baitzen.

Beraz, emakume finak egunean bi aldiz pasatu behar du gizonaren gainetik.

Emakumea goraltzen duten beste bi atsotitz:

“Andre ona, etxe ona”.

“Andre ona, naiz zelako nahiz pastako”.

Zela zaldiari bizkar ganean ipintzen zitzaion bihungarria zen. Pasta, ber-ritz, astoari ipintzen zitzaiona. Beraz, emakume onak lan dotoreetarako eta la-tzetarako ere balio du.

Ahaidegoaren leinua emakumeak egiten du. Baztango baserrietan esaten dute:

“Etxeko andrea nondik, jendakia handik”.

Eta beste hau:

“Haurra norena den amak daki”.

Guztiok ezagutzen dugu zenbait neskazahar edo mutxurdin. Horietarik ba-tzuk, behar bada, ez dira ezkondu, gazte denboran goraegi begira ibili zirelako.

Holakoentzat bada atsotitz jator bat. Guztiok dugu entzuna:

“Oñezkorik nai ez, eta zaldizkorik etorri ez”.

Garai batean aberatsak zaldi ganean ibiltzen ziren. Behartsuak oinez. Zen-bait emakumek zaldunarekin ezkondu nahi. Azkenean ez ziren ezkondu, ez zal-dunekin eta ez oinezkorekin.

Senarrik harrapatu ez duen mutxurdin batek baino gehiago esan lezake atsotitz hau:

“Gizona, buztinezkoa ere ona”.

Ezkontzea eta hiltzea goian erabakitzen omen da:

“Ezkontzea eta agintzea zerurean jatoguz” irakur genezake *Refranes y sentencias*-etan.

Eta beste batek esaten digu:

“Norekin ezkondu eta noiz iltzia, zeruan dago idatzia”.

Aita, seme ona badu, hartaz harrotuko da. Seme gaiztoa badu, ordea, zaputu egingo du. Ama ama delako, ordea, beti axolatuko da seme gaiztoaz.

“Seme zintzoa aitaren atsegiña; seme biurria amaren atsekabea”.

Lan ongi egin dezan, semea ongi janda ibili dadila, gaizki jantzita badabil ere. Alaba, ordea, senarra harrapa dezan, ongi jantzia dabilela, goseak amorratzen badabil ere.

“Semea etena ta ase; alabea jantzia ta gosea”. *Refranes y sentencias*-en arabera.

Dena delarik, semeak ezkontzea, alabak ezkontzea baino errazago dela uste izan da Euskal Herrian:

“Alaba ezkondu zak al danian, semia nai duanean”.

Alaba bakarria izatea beltzat jotzen da. Atsotitz nahiko dira uste hori adierazten dutenak:

“Alaba bakarria ta gaztaina bakarria alperrik galtzen dira” esaten zigun gure amak.

Intzak dakarren atsotitza gogortxoago da:

“Alaba bakarria, debro bakarria”.

Unanuako baserritarrei entzuten diet:

“Alaba bakarria, etxean gerra”.

Halere, alabak ere oso goratzen dira. *Refranes y sentencias*-etan aurkituko ditugu hitz itxaropentsuok:

“O(nd)asun ezein baño obea zartzaroko alabea”.

Orain familia askotan bi haur ikusten dira. Garai batez onena bost ume izatea zela uste zuten. Peru Abarkan ere agertzen da uste hori:

“Alaba bi ta iru seme, adinon”. Arakistainek ere honen antzeko atsotitza dakar.

Halere, emakume gehiegi etxean ez da gauza ona:

“Andre bi eska(ra)tz (sukalde) baten txarto”.

Aitarentzat bi alaba izatea pozgarri omen da. Hiru, ordea, gehiegi:

“Alaba bat, alaba ona. Alaba bi, alaba onak. Alaba hiru amarekin, atte lau lapurrekin”.

Aldi batez, berriz ezkontzen ez zen emakumea ohoretan hartzen zuten Euskal Herrian:

“Emakumea alargundu ta arrotu”.

Halere, negargarria alargungoa:

“Alargun ala alarguntsa, teilatu gabeko egoitza”.

“Alargun, begi illun”.

Alarguntsaren semea eskuarki lotxingaz hazia izango dela uste izan zen. Ongi nazi eta gaizki hezi.

“Alarguna(r)en semea baño, bere urdea da obeago”.

“Senidien arteko ezkontziek txarrak” dio esaera zaharrak.

Halere, lehenago orain baino sarritxoago ezkontzen ziren ahaideak elkarrekin. Diru eginda, Ameriketatik zetorren osaba ilobarekin ezkontzea ez zen horren harrigarria. Nik neuk ezagutu ditut holakoak Baztanen.

Irazustaren “Joanixio” elaberriaren haria horixe da. Eta Migel Unamunoren amak osaba zuen senarra.

Haserretan txarrenak ahaiden artekoak:

“Senitarteko auzia, gogorra ta luzia”.

Aholku bat, beraz:

“Senitarteko saltsan ez sartu”.

Psikologia handia erakusten dute zenbait atsotitzek. Batek esaten du, senar itsusiak emazteari ohore ekarriko diola:

“Eikek senar makerra ta ak aukake andera”.

## LANA

Euskal Herrian lanari gora handia egiten zaio. Gogotan eduki bizkaieraz lana “beharra” dela. Lana beharrezkoa da guztientzat. Aspaldidanik bibliaren hitzok bere egin zituzten euskaldunek: “Izertia aterata jango duzu egunerokogia”.

Baserritarrak aspertu gabe esaten dute “Txoria aireko, gizona laneko”.

Atsotitzetan langileak goratuak eta batez ere alferrak gaitzetsiak dira. Alferei buruzko 100 esaera baino gehiago bildu ditut.

Ezkontzari loturik ere bai. Alferrarekin ezkontzen dena zoritxarra izango duela adierazteko honelaxe dio atsotitz batek:

“Ezkundu hadi alferrarekin eta izango dituk astean bi ostiral”.

Gogoan eduki euskal kulturaren ostirala berri egiteko eguna zela, egun iluna, Kristoren heriotza berritzen zuena.

Emakume bati gertatu ahal zaion gauzarik txarrena senar alferra hartzea da. Gure aita zenak amaikatxo bidar esan zigun ixtorio hau:

Aita batek hiru alaba omen zituen. Hiruak ia aldi berean ezkondu ziren.

Luzaro gabe hiruak etorri omen zitzaizkion, hiruak negar baten. Lehenak esan omen zion: “Aita, oraintxe ohartu naiz. Mozkor batekin ezkondu naiz. Hau zoritxarra!”.

Aitak erantzun omen zion: “Ene alaba, beti ez din mozkorturik egongo. Edan gabe daoenan gizon ona izan liteken. Etzan etsi! Ez haiz senar txarreakin ezkondu”.

Bigarrenak ere malakoak zerizkiola esan omen zion: “Aita, jokalaria batekin ezkondu naiz. Diru handiak galtzen ditu. Ene zoritxarra!”.

Aitak ihardetsi omen zion: “Alaba, ez hadi horregatik triste! Beti ez din galduko. Irabazi ere egingo din! Ez dun senar txarrik hartu!”

Hirugarrena etorri omen zitzaion. “Aita, alfer batekin ezkondu naiz, ene zoritxarra”.

Orduan aitak berak ere negar egin omen zuen eta ihardetsi: “Ene, alaba maitea. Hik bai, hik beti egingo beharko dun negar. Gizon txarreakin ezkondu aiz”.

Alferrari buruzko atsotitz batzuk psikologia zorrotza adierazten dute.

Honetxek, adibidez:

“Alferraren kolpea zuzena”.

Egia esan, Azpeitiko baserrietan lehengo aldiz entzun nuenean ez nuen ulertu.

Bertako baserritarrek azaldu zidaten. Alferrak ahal duen lanik guttiena egingo du. Egiten duena, baina, ongi egiten du, gaizki egin eta berriro egin beharrik ez izateko.

Adibidez, giltza, untzea sartzen duenean, zuzen sartzen du. Oker sartuz gero, zuzentzen lan gehiago igaro behar duelako. Beraz, lan gutti egiteko, giltza zuzen eta ongi sartzen du.

Alferrari ate bat egiteko esaten diozunean, ongi egiten du. Beldur da, gaizki eginez gero, berriz egiteko esango diozula eta.

Alferrari ez zaio aitzakiarik falta lanik ez egiteko. Gipuzkoako eta Bizkaiko baserrietan esaera hau maiz entzungo duzue:

“Lehengi curi tanta alferrari erortzen zaio kopeta gainean”.

Izan ere, alferra lanik egin gabe, gora begira egoten denez gero, berak su-matzen ditu lehenik euri tantak.

Beste hau ere Deba ibarrean eta Errezilen entzungo duzue:

“Alferrak kaka sarri, urrutira joan eta nekez etorri”.

Alferrak lan ez egiteko, sarritan joaten da kaka egitera. Eta ez hurbilera, urrutira baizik. Eta urrutira joan eta han ere berandu etortzeko aitzakiaren bat aurkituko du.

Gure baserrietan behiak oso toki nagusia betetzen du. Etxekoei esnea eman, urtero txahal egin eta salduz gero, diru eskuratzen die. Indian behiari ekartzen dioten ohorea alderdi honetatik ulertu behar da. Indiarra joan ziren arioeak beren ibilaldi luzeetan behia izan zuten behar beharrezko bizibidea.

Alferraren etxean, ordea, gauzak oker joaten dira. Esaera oso zabaldua da hauxe:

“Alferraren etxean behia antzu eta andrea ernari”.

Hemen hitzez jokoaz ohartu behar gara. “Andrea ernari” ez da eguneroko hizketan esaten. “Andrea haurdun” esaten da, edo “umedun”. “Ernari” animalientzat bakarrik erabiltzen da. Atsotitz honetan, ordea, alperraren etxean gauzak batekoz bestera daudela esateko, hitzak ere oker ezarriak daude.

## ABERATSAK ETA BEHARTSUAK

Euskal atsotitzen arabera, gizartean bi talde dira. Alde batean aberatsak eta behartsuak bestean.

Aberatsak madarikatuak aurkitzen ditugu: behartsuak goratuak.

“Aberatsa infernuko laratza; pobreak zeruko lebatza”.

Laratzak beheko suaren gainean egoten ziren burdinei esaten zaitzaaien. Kako bat izaten zuten muturrean pertza zintzilikatzeko. Pertza horretan jan ondarrak izaten ziren egosten, gero animalieei emateko.

Eta beste batek:

“Aberatsa ta ona leku batan gaitz da bilatzen”.

Halere, aberatsari gehienetan ongi dohakie mundu honetan. Euskal atso-titzetan garbi azaltzen da diruaren indarra.

“Aberatsak beti muturreko aundi”.

Dirua beti da onartua eta ezertan edukia:

“Diruak kaka artean ere usain ona”.

Diruaren gainetik ez dago inor:

“Dirua mundu ontako Jangoikua”.

Dirua alderdi guztiera hedatzen da eta gainean gelditzen:

“Dirua, olioren pare”.

Diruarentzat ez da malkarrik:

“Diruak aldapa danak berdintzen ditu”.

Ez esirik:

“Zilarrezko giltzak ate guztiak zabaldu”.

Eta itsasoan ere lasai dihoa:

“Diruak itsasoan ere bidea egiten”.

Aberatsaren aurrean guztiok apal:

“Aberatsaren aurrean denak burua makurtu”.

Jendea aberatsaren aurrean ez da egia esaten ausartzen:

“Diruak berba eitxen dabenien, egixa ixilketan dok”.

Guztiek egiten diote jaramon diruari:

“Diruak txakurrari ere dantzan eraginazi”.

Dena dela, diruaren bidea maiz ez da garbia. Hauxe da maiz aberats izateko bide arrunta:

“Ez da nehor aberasten bester(i) kenduz baizik”.

Aberatsari eta behartsuari ez zaio tratu bera ematen:

“Aberatsari agur, erromesari (behartsuari) zakur”.

Atsotitzetan aberastasunari baino hobe eristen diote izen onari:

“Aberatsa izatea baño fama ona izatea obe” entzuten da eskuarki Gipuzkoan.

1596ko *Refranes y Sentencias*-etan ere gauza bera idatzi zuten:

“Aberats izaitea baño ospe ona obeago”.

Halere:

“Guziak aberatsaren ahaide, pobreak ez du bat ere”.

Diru egarria ez da sekula kentzen:

“Aberatsago eta goseago” esaten dute Nafarroa Behereko laborari etxeetan.

Gauza bera errepikatzen dute Zeanurin:

“Asko daukonak geo (gehiago) gure”.

Kontuz ibili behar dute denbora ttikian aberastu nahi dutenek:

“Aberatsi nahi zena urthe bitan, urkha zedin urtherditan esan zuen gure Oihenartek bere bilduma gogoangarrarian.

Behin eta berriz esan behar da. Sarri ez da erraz atsotitzak ulertzen. Honatx holako bat Aramaion entzuna:

“Aberatsak gosiek hil; pobrie larri janak; abadie otzak”.

Aberatsak, mila gauzez antsiaturik, jan ez; pobreak, biharamunean deus jango ez duelakoan, aukera duenean larri jan eta lehertu; abadeari, berriz, denei agurtu egin behar eta haize hotza erropen tartetik sartzen. Halaxe azaldu zidan Ipurtotzeko Emeterio Bergaretxe nire adiskide eta maisu maiteak.

Aberatsaren eta behartsuaren alde onak elkartuz gero, oso urrutira joan liteke:

“Aberatsaren diruarekin eta pobreaken borondatearekin zenbat gauza egin leikezan”.

Aberatsak harro izaten dira batzutan:

“Aberatsen etxean arratoiak ere zerrikume”, esaten da, norbait harrokeriatan hasten denean.

Ez sinets, halere, aberatsen kontu guztiak. Maiz handitu egin ohi dira:

“Diruba, edertasuna ta santidadia erdia(re)n erdia”.

Bestalde, jauntxokeria guztiak dirurik gabe, gutxi balio dute:

“Diru gabeko jauna, mihi gabeko kanpaia”.

Honatx zein aholku on ematen digun atsotitz honek:

“Ez esan zenbat diru duzun eta non duzun”.

Eztabaidetan eta auzitan, aberatsa beti gailen:

“Dirue daukenak beti errezoie”.

Pobrea, berriz, beti noraezean:

“Hiru gauza alperrik galtzen dira: Egurra basoan, aberatsaren indarra eta pobrearen arrazoa”.

Diru asko izan arren, kontuz, erraz gal litezke. Ongi jagon:

“Dirua ta indarra kasu eginda izaten dira”.

Gure egunotan, gobernuan batez ere, lapur asko agertu dira.

“Txoriak harrapatzeko sarea, gizonak arrapatzeko dirua”.

Diruarekin gauza asko eros litezke. Dena ez. ordea:

“Diruek bakarrik ez deuko zoriona”.

Errukia eduki behar zaio, diruaren mende bizi den gizonari:

“Dirua mutilik hoberena eta nagusi txarrena”.

Izan ere, dirua ongi erabiliz gero zerbitzu anitz egiten; xuhurkeriatan hasiz gero, ordea, miseriara eramaten.

Diru asko izan arren, pertsona kaxkarra izan liteke:

“Ez du diruak egiten gizona; gizonak egiten du dirua”.

Oraingoz bukatu dut. 13.000 atsotitzak azaltzen direnean, nork bere go-garako alorra jorratzeko era izango du.